



Familia, hizkuntzen eskola



Familia nini, mutiko eta neskatoentzako lehenengo eskola izaten da. Hizkuntzei dagokienez, familia guztiek (haurrei transmititu nahi zaizkien hizkuntzak ezagutu edo ez) lagundu ahal diete beren seme-alabei haien garapen linguistikoan. Euskararen kasuan, baliteke etxean bikotekide batek bakarrik euskaraz hitz egitea, biek hitz egitea edo bietako inork ez. Edozein modutan, denek egin dezakezue zuen ekarpena: zuen seme-alabak eredu eleaniztunetan matrikulatuz, eskolaz kanpoko jardueretan euskara indartuz (zinema, antzerkia, ipuinak, abestiak...). Eta, gainera, euskaraz dakizuenok haiekin hitz eginez eta ez dakizuenok haiekin ikasiz.

Hizkuntzen bide horretan jolas, ipuin, abesti, aholku praktiko eta irizpideen bidez laguntza eskainiko dizueten baliabide interesgarri asko aurkitu ahalko dituzue, besteak beste, online. Ondoren, aurkitu ditzakezuen baliabideen artetik batzuk ekarri nahi izan dizkizuegu zuen etxetik bertatik klik batean euskaraz goza dezazuen:

- Euskara transmititzeko aholkuak, irizpideak eta tresnak: www.emangintza.eus.
- Marrazki bizidunak online euskaraz, jolasak, eskulanak: www.eitb.eus/eu/hiru3/.
- Ipuinak, abestiak, jolasak: www.txiki.net.
- Haur eta helduentzako ipuinak audioarekin: www.etxegiroan.com.

Baliabide hauek eta beste batzuk arakaturik familian gozatzera animatu nahi zaituztegu.

Gai honen inguruko aholkularitza, materiala edo laguntza behar baduzu, edo iradokizunen bat egin nahi baduzu, Udaleko Euskara Zerbitzura jo edo deitu dezakezu.

IZEN-EMATEAK 2017/18 IKASTURTERAKO

Haurrentzako:
Larunblai, Iseka,
Euskal Dantzak
eta Ludoteka

**Gazte eta
helduentzako:**
trikitixa, panderoa,
jauziak, irakurle
taldea

BEKAK ETA ESKOLAK

**HELDUEN
euskalduntzerako**

KULTUR JARDUERAK



**Ipuin kontalariak,
antzerkia eta
abestiak haur
eta familientzat,
txangoak,
bertsoak...**

Larunblai / Iseka aisialdi taldeak



LARUNBLAI: Euskarazko aisialdi taldea D ereduko Lehen Hezkuntzako 1.-6. maila bitarteko haurrentzat.

- 📅 Urriaren 13tik hasita, ostiraletan.
- 🕒 17:30 - 19:30.
- 📍 Kontsultategiko azpialdea (Mutiloa).

ISEKA: Euskarazko aisialdi taldea D ereduko DBH-ko 1. eta 3. maila bitarteko neska-mutilentzat.

- 📅 Urriaren 13tik hasita, ostiraletan.
- 🕒 17:30 - 19:30.
- 📍 Ibaialdeko lokalak (Mutiloa).

Izen-emateak:

- 📅 Irailaren 25etik 29ra.
- 🕒 10:00 - 14:00.
- 📍 Euskara Zerbitzura deitu edo izen-emate orria eraman.
- 📍 Plaza mugatuak. Lehenetsuna izanen dute errolatutakoek eta aurreko urtean jardueran parte hartu zutenek.
- 💰 60 €

Ludoteka

4-12 urte bitarteko haurrentzat.

- 📅 Urritik hasita, ostegunetan (euskaraz A eta D ereduentzat).
- 🕒 17:00 - 19:00.
- 📍 Idoi Plazako lokalak.

Informazio gehiago:

- ☎ 948 15 13 82.
- 📍 Oinarritzko Gizarte Zerbitzua eta Gizarte Zerbitzuko iraileko buletina.

Euskal dantzak

D ereduko haurrentzat.

A TALDEA: Haur Hezkuntzako 3. maila eta Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailak

- 📍 Kontsultategiaren azpialdean (Mutiloa).
- 📅 urriaren 9tik hasita, astelehenetan.
- 🕒 17:30 - 19:00.
- ➡ Gutxienez 8 eta gehienez 24 haur.



B TALDEA: Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailak.

- 📍 Kontsultategiaren azpialdean (Mutiloa).
- 📅 urriaren 9tik hasita, astelehenetan.
- 🕒 19:00 - 20:30.
- ➡ Gutxienez 8 eta gehienez 24 haur.

Izen-emateak:

- 📅 Irailaren 25etik 29ra.
- 🕒 10:00 - 14:00.
- 📍 Euskara Zerbitzura deitu.
- 💰 10 € errolatuak / 30 € errolatu gabek.
- ➡ Zerrenda izen-emate hurrenkeraren arabera osatuko da.
- ➡ Lehenetsuna izanen dute errolatutakoek eta aurreko urtean jardueran parte hartu zutenek.



Haurrentzako abestiak eta koreografiak

“Astonauta”
(Ene Kantak taldea)

Zuzendaria: Urko Oskoz.

- 📅 Irailak 17, igandea.
- 🕒 17:30.
- 📍 Aranguren Ibarreko kiroldegiko pabiloia (Mutiloa).
- 🕒 Iraupena: 75 minutu.
- 💰 Sarrera: 3 €

Ipuin kontalariak



- 📅 Urriak 18 eta azaroak 22 (asteazkenak).
- 🕒 18:00.
- 📍 Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Ludoteka aretoan (Mutiloa)

4 urtetik gorako haurrentzat gomendatua. Doako sarrera.

Familia Antzerkia



“Chef chof”

Trokolo Teatroa

- 📅 Azaroak 5, igandea.
- 🕒 17:00.
- 📍 Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioan (Mutiloa)
- 💰 Sarrera: 3€



“Greta Liburuzaina”

Zuzendaria: Xabier Flamarike

- 📅 Azaroak 19, igandea.
- 🕒 17:00.
- 📍 Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko Auditorioan (Mutiloa).
- 💰 Sarrera: 3€

Olentzerorako kartel lehiaketa



Ibarrean errolatutako edo San Pedro Ikastetxe Publikoko 1.-6. mailetako ikasleentzako.

- 📅 Aurkezteko epea: deialdia argitaratzen denetik abenduaren 15era arte (13:00ak arte).
- 🕒 17:00.
- 💰 Saria: 50€ material didaktikoan.
- ➡ Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.



Euskara ikasteko eskolak

2017/18 ikasturtean Ibarrean euskara ikasi nahi al duzu?

MATRIKULA ZAITEZ ETA GOZATU EUSKARA!

30 euskaltegi baino gehiago Nafarroan.

- Nafarroako euskaltegiek urtetan

bildutako esperientzia zabala eta metodologia garatua eta anitza dute. Horiei esker, milaka lagun hurbildu dira, euskarara, eta hori gozatu eta ikasi dute. Haietariko batzuen bizipenak entzuteko: www.euskaraikasi.nafarroa.eus.

- Matrikula zaitez eta diru laguntzei buruz galdetu zure euskaltegian edo zure udalaren euskara zerbitzuan.

- **Informazio gehiagorako deitu edo hurbildu Euskara Zerbitzura.**



Mintzakide “hartu, eman, eragin”

Euskarazko elkarrizketak izateko taldea. Taldeetako partaideak honakoak dira:

- Euskaraz hitz egiteko jarotasuna lortu nahi duten pertsonak.
- Ongi pasatuz beste batzuei horretan lagundu nahi dieten pertsonak.

- 📅 Irailaren 25etik urriaren 22ra.
- 📍 Euskara Zerbitzua.
- ➡ www.irunerrikomintzakide.org

Informazio gehiago:

- @ mintzakide@topagunea.org / euskera@aranguren.es
- ☎ 948 33 08 68 / 674 351 719 / 948 15 01 93

Euskara ikasteko bekak

2016/17 ikasturtean zehar euskara ikasten aritu diren eta ondorengo baldintzaren bat, edo biak, betetzen duten pertsonentzat:

- Ibarrean errolatuta egon.
- Ibarrean jendaurrean lan egin.

Eskaerak aurkezteko epea:

- 📅 Urriaren 6ra arte.
- 📍 Euskara Zerbitzuan.
- ➡ Informazio gehiago www.aranguren.es eta Euskara Zerbitzuan.

Trikitixa Ikastaroa eta Pandero Ikastaroa



- 📅 Ostegunetan.
- 🕒 17:30 - 18:30.
- 📍 Kultur Etxea (Mutiloa), 3. gela.
- ➡ Iraupena: irailaren 21etik ekainaren 15era.
- 💰 Kuota trikitixa ikastaroa: 57 €/hilabetea.
- 💰 Kuota pandero ikastaroa: 35 €/hilabetea.

Izen-emateak: irailaren 15era arte Euskara Zerbitzuan.

Irulegi Euskara Taldeak antolatutako jarduera.



Jauzi ikastaroa

- 📅 Asteazkenetan.
- 🕒 19:00-20:30.
- 📍 Zolinako Elkartea.
- ➡ Iraupena: Urria-azaroa.
- 💰 Kuota: 10 €.

Izen-emateak: irailaren 22ra arte Euskara Zerbitzuan.

Irulegi Euskara Taldeak antolatutako jarduera.



Irakurketa taldea

Aurten ere irakurle taldea martxan jarriko da Jon Alonso idazleak bideratuta. Hilero liburu bat irakurri eta landuko da. Aukeratu lehenengo liburua Iñigo Aranbarri idazlearen “Zulo bat uretan” izanen da eta dagoeneko eskuragarri dago ibarreko liburutegian.

- 📅 Hilabeteko l. osteguna: Hasiera: urriak 5.
- 🕒 19:00-20:30.
- 📍 Kultur Etxea (Mutiloa).
- ➡ Iraupena: urria-ekaina.
- 💰 Kuota: 10 €/hilabetea.

Izen-emateak: irailaren 22ra arte Euskara Zerbitzuan.

Irulegi Euskara Taldeak antolatutako jarduera.



Autobusa Nafarroa Oinezera, Lesakara

Lesakaraino bidaia, Nafarroako ikastolen jaia bertan ospatuko baita.

bikin batin

- 📅 Urriak 15, igandea.
- 🕒 Irteera 9:00etan Mutiloatik (herrietatik irteteko aukera dago Aranetxean alde aurretik eskatuta) Itzulera 19:00etan Lesakatik.

Izen-emateak:

- 📅 Urriaren 9ra arte. Tokiak izen-emate hurrenkeraren arabera beteko dira.
- 🕒 16:30-21:30.
- 📍 Aranetxea.
- 🎫 5 € erroldatuak / 10 € erroldatu gabeak.
- ➡ 14 urte gorakoentzako jarduera, edo adinez nagusia den norbaitek lagundutako adin txikikoentzako.
- ➡ Adin txikikoek baimena ekarri beharko dute.
- ➡ Lehentasuna izanen dute Aranguren Ibarrean erroldatuek.

Mendukilo kobazulora txangoa

Astitzeko Mendukilo kobazuloa ezagutu eta egun paregabea euskaraz igarotzeko aukera bikaina

- 📅 Urriak 22, igandea.
- 🕒 Irteera 9:15ean Mutiloako San Pedro Eskolatik. 10:30ean Bisita gidatua kobazulora.

Izen-emateak:

- 📅 Urriaren 18ra arte.
- 📍 Euskara Zerbitzuan.
- 🎫 Helduak 8 €
Haurrak 6 €



Bertsolari txapelketa nagusiko finala

Abenduaren 17an Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala izango da Bilboko BEC aretoan.

Interesa izan eta ibarreko jende gehiagorekin kultura egun horretaz gozatu nahi baduzu, jarri Irulegi Euskara Taldearekin harremanetan ahalik eta lasterren: irulegieuskarataldea@yahoo.es

Diru-laguntza deialdia, aranguren ibarreko establezimenduetako errotuluetan euskara erabiltzeko

Aranguren Ibarreko Udalak diru-laguntzak emanen dizkie udalerriko establezimenduei jarritako errotulazioan euskara erabiltzen badute (fatxada, erakusleihu, eguzki-oihal eta ibilgailu komertzialetan).

- 📅 Abenduaren 15era arte.
- 📍 Euskara Zerbitzuan.
- ➡ Informazio gehiago www.aranguren.es eta Euskara Zerbitzuan

Argitalpena

Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Aranguren Ibarreko Udalak argitaratutako "Estudio Sociolingüístico del Valle de Aranguren" argitalpenaren ale bat nahi baduzu, jar zaitez Euskara Zerbitzuarekin harremanetan. **Doako aleak daude erroldatuentzat.**



Euskaldunen fitxategia

2009an Aranguren Ibarreko Udalak Ibarreko Euskaldunen Fitxategi bat sortzea erabaki zuen. Fitxategi horren helburua hala nahi zuten biztanleei Ibarrean antolatzen diren euskarazko edo euskarari buruzko jarduerak modu eraginkorragoan jakinarazi ahal izatea da. Horrelako **jardueren berri jaso nahi baduzu edo** fitxategian egoteko fitxa bete zenuenetik zure **daturen bat** (e-posta, telefonoa...) **aldatu baduzu, jar zaitez udaleko Euskara Zerbitzuarekin harremanetan.**

👉 Euskara zerbitzua

Udalaren helburua Ibarreko taldeekin elkarlanean aritzea da. Ibarrean euskaraz edo euskarari buruzko jardueraren bat antolatzeko proposamenik baldin baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan.

- 📍 **Aranguren Ibarreko Udala, 1. pisua. Mutiloa pl/ z/g. Mutiloa**
- 📅 **Astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00**
- ☎ **948 15 01 93**
- ✉ **euskera@aranguren.es**